

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

12 urtetik 14ra bitarteko neska-mutilentzat egokitutako bertsiola

Art. 1 HAURREN DEFINIZIOA
Hitzarmen hau haur guztiei aplikatuko zaie, eta 18 urte bete arteko pertsona guztiak dira haur. Beraz, nerabe guztiak ere hor sartzen dira.

Art. 2 BEREIZKERIARIK EZI
Hitzarmen honetan aipatutako eskubideak haur guztiei dagozkie, inolako bereizkeriarik egin gabe eta sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo bestelakoak, jaioterria, etnia edo gizarte jatorria, maila ekonomikoak edo ezintasun fisikoak kontuan hartu gabe.

Art. 3 HAURREN INTERES GORENA
Erakunde publiko nahiz pribatu batek edota pertsona batek haurrekin edo nerabeekin lotuta erabaki bat hartu behar duenean, neska-mutil horientzat onuragarriena zer den hartu behar dun kontuan lehenengo. Estatuek konpromisoa hartzen dute haur guztiei beren ongizaterako beharrezkoak diren babesa eta arrata bermatzeko.

Art. 4 ESKUBIDEAK BETEARAZTEKO ESTATUEK DUTEN ERANTZUKIZUNA
Hitzarmen honetan jasotako eskubideak beteazterako beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar dituzte gobernuak eta agintariak.

TERMINOEN GLOSATEGIA

HITZARMEN: herrialdeen arteko akordioa, legez bete beharrekoa. Hitzarmen hori berresten duten herrialdeek berorren edukia bete egin behar dutela esan nahi du.

KULTURA: komunitate bateko kide garena sentiarazten diguna. Hauek dira kulturaren adierazpide batzuk: hizkuntza, sukaldaritza, ohiturak, abestiak edo elkarrekin harremanetan jartzeko modua.

ESKUBIDE: jaiotzen denetik pertsonak, heldu, haur nahiz nerabe izan, berea duen gaitasuna edo ardua.

EGINBEHAR: zerbaite egiteko erantzukizuna. Haurren eskubideei buruzko hitzarmeneko artikulua guztiei lotuta, bada nahiago egin behar bat: agindu edo arau horiek haur eta nerabe guztiei eta, oro har, pertsona guztiei errespetatu behar zaizkie. Eskubideak eta eginbeharrak elkarrekin lotuta baitaude.

BERRETSI: onartu, baieztatu. Agiri bat onetsi, eraginkorra izan dadin.

BERTSIO: zerbaite kontatzeko modu desberdina. Bertsiola honetan ez dira Hitzarmeneko eskubide guztiak agertzen. Jatorrizko testua eta testu horretako 54 artikulua ezagutu nahi badituzu, Save the Childrenek argitaratutako "La Convención sobre los Derechos de Niño" liburuxka erabil dezakezu.

Laguntzen dute:
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

Art. 6/27 BIZITZA DUINA IZATEKO ETA ONGIZATERAKO ESKUBIDEA
Haur guztiak dute bizitzeko berezko eskubidea. Estatuek ahal duten guztia egingo dute haurren biziraupena eta garapena bermatzeko. Eta haur guztiak dute fisikoki, buruz, espiritualki, moralki eta gizartean garatzeko modua emango dieten bizi maila egokia izateko eskubidea.

Art. 7 IZENA ETA HERRITARTASUNA IZATEKO ESKUBIDEA
Haur bat jaiotzen denean, inskribatu egingo da, eta izena eta herritartasuna izateko eskubidea izango du eta gurasoek ezagutzeko eta gurasoek zaindua izatekoa.

Art. 8 IDENTITATEA IZATEKO ESKUBIDEA
Neska-mutil guztiak dute beren identitatea, herritartasuna, izena, maite dituen pertsona eta familiarako harremanak babesteko eskubidea.

Art. 9/20 GURASOENGANDIK BEREIZITA BIZI DIREN NESKA-MUTILEN BABES BEREZIA
Neska bat edo mutiko bat ez da gurasoengandik bananduko, neska edo mutiko horren onerako beharrezkoa ez bada. Behin-behineko edo modu iraunkorrean familiarengandik bereizita bizi diren neska-mutilek agintariengandik babesa eta laguntza jasotzeko eskubidea dute; eta berorien jatorria kontuan hartuta, hezkuntzan jarraitzeko modua dutela bermatu behar dute.

Art. 10 FAMILIAREN BATERATZEA
Familia batu ahal izateko edozein estatutatik irteko edota sartzeko eskubidea egiten badu pertsona batek, estatuek modu positiboan, gizalegez eta eraginkortasunez erantzunango dute.

Art. 11 LEGEZ KANPOKO LEKUALDATZEAK ETA ATXIKITZEA
Agintariak atzerrian neska-mutillak legez kanpora edo atxiki ditzaten saihestu behar dute.

Art. 13 ADIERAZPEN ASKTASUNERAKO ESKUBIDEA
Neska-mutil guztiak dute adierazpen askatasunerako eskubidea. Eskubide horren barnean, informazioa eta askotariko ideiak bilatzeko, jasotzeko eta zabaltzeko eskubidea ere sartzen da, betiere, besteen eskubideen aurka egin gabe.

Art. 12 IRITZIA EMATEKO ETA ENTZUNAK IZATEKO ESKUBIDEA
Neska-mutilek eskubidea dute gai orotan beren iritzia emateko, eta beroriekin zerikusia duten gai guztietan ere entzun diezaieten eskubidea dute. Komunitateko edo gizarteko hainbat eremutan parte hartzeko eskubidea dutela esan nahi du horrek.

Art. 15 ELKARTZEKO ESKUBIDEA
Neska-mutil guztiak elkartzeko eta modu baketsuan batzarrak egiteko eskubidea dute.

Art. 16 INTIMITATERAKO ESKUBIDEA
Haur guztiak eskubidea dute beren bizitza pribatua izateko. Beren bizitza pribatua, beren familia eta korrespondentzia (gutunak, SMSak, posta elektronikoa) edozein erasotatik babestuta izan behar dituzte.

Art. 17 INFORMAZIO EGOKIA LORTZEA
Neska-mutilek eskubidea dute askotariko iturrien bidez informazioa eta materiala eskura izateko, horien helburua berorien ongizate soziala, erlijioa, espirituala eta morala sustatzea eta osasun fisiko eta mentala indartzea denean.

Art. 14 PENTSAMENDU, KONTZIENTZIA ETA ERLIJO ASKATASUNA
Haur guztiak pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna izateko eskubidea dute.

Art. 22 HAUR IHESLARIEN BABESA
Neska-mutil iheslari guztiak babes berezia izateko eskubidea dute. Neska-mutil iheslariak babesten dituzten erakundeekin lankidetzan aritzera behartuta daude agintariak.

Art. 18 EGUNEROKO ZAINKETAN GURASOEN ERANTZUKIZUNA
Neska-mutileen hezkuntza eta garapena guraso bien erantzukizuna da. Agintariak beharrezko laguntza eman behar diete gurasoei eginkizun horiek bete ditzaten.

Art. 28/29 HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA
Neska-mutil guztiak dute hezkuntzarako eskubidea, aukera berdintasunean, betiere. Agintariak mundu guztiari derrigorrezko eta doako lehen hezkuntza bermatu behar diote, eta bigarren hezkuntzaren garapena sustatu behar dute. Eta goi mailako irakaskuntza eskura izan behar dute guztiak. Hezkuntzak neska-mutil guztien nortasuna eta gaitasunak garatzera zuzendu behar du. Neska-mutilek pertsona guztien giza eskubideak eta oinarriko askatasunak errespetatzen ikasi behar dute.

Art. 21 BABESA HARRERA EDO ADOPTIO KASUETAN
Adoptio edo harrera kasuetan, neska edo mutil horrekin lotuta erabaki bat hartu behar denean, haurren interes gorenak izango du lehentasuna.

Art. 23 NESKA-MUTIL EZINDUEN ESKUBIDEAK
Ezintasunen bat, fisikoak, sentipenen arlokoa edo psikikoa, duten neska-mutil guztiak eskubidea dute beren duintasuna bermatuta izango duten bizimodu egoki eta bete izateko, betiere, beren kabuz baliatzeko gai izaten eta komunitatean parte hartzen lagunduko dieten baldintzetan.

Art. 32/36 LAN ARRISKITSUEN AURKAKO ETA EDOZEIN ESLOTAZIO MODUREN AURKAKO BABESA
Neska-mutilek eta nerabeek ekonomikoki esplota ez ditzaten eskubidea dute. Lanean ari badira, beren osasunerako edo garapenerako arriskitsuak ez diren baldintzetan egin behar dute. Neska-mutilek bere ongizaterako kaltegarriak izan daitezkeen esplotazio modu guztien aurka babes ditzaten eskubidea dute.

Art. 30 GUTXIENGOEN BABESA
Gutxiengo etniko, erlijioso edo linguistiko bateko neska-mutilek eskubidea izango dute bere kulturaz gozatzeko, beren erlijioa praktikatzeko eta beren hizkuntza erabiltzeko.

Art. 33 DROGEN KONTSUMOAREN ETA TRAFIKOAREN AURKAKO BABESA
Estatuek beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte edozein helbururekin neska-mutillak babesteko eta, aldi berean, horrelako substantzien ekoizpen eta trafikoa erabil ditzaten galarazteko.

Art. 31 JOLASTEKO ETA ATSEDENA HARTZEKO ESKUBIDEA
Neska-mutil guztiak jolas egiteko, atsedena hartzeko eta beren adinari dagozkion jolas jardueretan parte hartzeko eskubidea dute. Eta kultura eta arte jardueretan parte hartzeko eskubidea ere badute.

Art. 40 LEGE AUZIAK DITUZTEN NESKA-MUTILAK
Neska bat edo mutiko bat delitu bat egiteagatik errudun deklaratu denean, duintasunez tratatua izango da, laguntza juridikoa izateko eskubidea du, erabiltzen ari diren hizkuntza ulertzen ez bada, interpretea izateko eskubidea du, bere auziari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea du, eta honen ongizatea eta gizarteratzea bultzatuko duten hezkuntza programak eskura izateko eskubidea ere badu.

Art. 41 LEGERIK EGOKIENA
Haurren eskubideak, Hitzarmen honetan bilduta ez ezik, estatu baten legeetan edo estatu horrek sinatutako nazioarteko legeetan ere jaso daitezke. Neska-mutilei beraien erantzukizuna eta onuragarriena den legea aplikatuko zaie.

Art. 35 NESKA-MUTILEN BAHIKETA, SALMETA ETA TRAFIKOAREN AURKAKO BABESA
Estatuek beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte edozein helbururekin neska-mutillak babesteko eta, aldi berean, horrelako substantzien ekoizpen eta trafikoa erabil ditzaten galarazteko.

Art. 38 ERABILTZEAURKAKO BABESTEA
Gatazka armatuetan soldadu gisa erabil ez ditzaten, 15 urte baino gutxiagoko neska-mutilek babes ditzaten eskubidea dute; eta estatuek betebeharrak hori betetzen dela segurtatu behar dute.

Art. 42 HITZARMENAREN ZABALKUNDEA
Gobernuak, erakundeak eta pertsona guztiak konpromisoa hartzen dute eskubideak hauek ezagutarazteko, horrela mundu guztian errespetatu daitezkeen.



Art. 42